

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	03 - INGURUMENENKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA
Atala:	0310 - Ingurumen Zuzendaritza Nagusia
Programa:	120 - Iraunkortasuna eta ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa
Funtzionala:	172 - Ingurumenaren babesa eta hobekuntza

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Programa honek misio bikoitza du. Batetik Udalerrietan, eskualdeetan eta, oro har, Gipuzkoako Lurralde Historiko guztian jasangarritasunera bideratutako plangintza eta gobernantza eredu bat garatzea, TA21/Agenda 2030 en bidez. Bestetik Gipuzkoako herritarrak natura, ingurumena babesteari buruzko eta jasangarritasunaren inguruko baloreetan heztea, horretarako Gipuzkoa Naturaldia izeneko ekitaldi programa bat garatuz, naturaren eta ingurumenaren zaintza hobetzeko.

Egoeraren diagnostikoa:

Tokiko Agendak Gipuzkoan ezarri zirenez geroztik 20 urte igaro dira eta ia udalerrri guztiek abiatu dute dagoeneko jasangarritasunerako plangintza prozesu bat Tokiko Agenden bidez, nahiz eta prozesuek ez duten bilakaera bera izan toki guztietan. Izan ere, udalerrien % 50 inguruk Agenda 21 baduten arren (Gipuzkoako Iraunkortasunaren Behatokia-Ingurumeneko Zuzendaritza), gehiengoak berraktibatu egin behar dira eta, oro har, gabeziak dituzte tokiko garapen jasangarritasunerako gobernantza eredu bat eratu beharko luketen elementuetan.

Bestalde, gizarteak oro har eta gazteek bereziki landa eta natur ingurunearekin ia kontakturik izan gabe garatzen dute beren bizitza eta jarduera, eta horren ondorioz gizarteari gero eta ezezagunagoa eta arrotzagoa zaio, oro har, natura. Naturaren eta ingurumenaren babesarako hezkuntza ezinbestekoa da hiri ingurunean gero eta kontzentratuagoa dagoen gizarte batean. Datuek adierazten dute Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilen naturarekiko lotura indize orokorra 1,42, batezbesteko balioaz (1,54 nesketan, eta 1,31 mutiletan). Oro har, 1,5eko puntuazioak naturarekiko lotura maila egokia eta nahikoa sendoa adierazten du. Gipuzkoan neska-mutilen % 53,2k gainditzen dute 1,5 indizea. Neskek naturarekiko lotura handiagoa dute.

Programak ondoko GJHei egiten die ekarpenak: 11. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK, eta 4. KALITATEZKO HEZKUNTZA.

Behararen deskribapen xehatua:

Udalek laguntza teknikoak behar dute tokiko agendak prestatu, kudeatu eta jarraipena egiteko, eta laguntza ekonomikoa, jasangarritasun jarduerak ezartzeko. Beste alde batetik, Foru Aldundiaren plangintza jasangarritasunera bideratu behar da, eta gehiago koordinatu behar dira udalen jarduera eta Foru Aldundiarena.

Biodibertsitatea eta gure planeta zaintzeko, ezinbestekoa da gizarteak behar bezala estimatu eta baloratzea. Gipuzkoa Naturaldiak naturarenganako errespeturantz eta estimurantz eramaten gaituzten bide guztiak aztertzen ditu, bereziki gugandik gertuen dagoen naturari begira.

Nori zuzendua:

Gipuzkoako herritar guztiak. Zeharka, mundu guztikoak. Udalak eta eskualdeetako garapen agentziak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitarteko ekonomikoak eta giza baliabideak Kanpoko kontratazioak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Azterlanak, jardunaldiak, tailerrak, diru laguntzak, laguntza teknikoak. Zinema.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Udalei zuzendutako laguntza, sendotze metodologikoa eta baliabide ekonomikoak; jasangarritasun proiektuak gauzatzea; jasangarritasunerako gobernantza sistema ezagutzea. Argitalpenak, jardunaldiak, dokumentalak, hezkuntza materialak.

Programaren arau esparrua:

Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra; Rio de Janeiro, 1992ko ekainaren 3tik 14ra; I. liburukia; Biltzarrak onartutako ebazpenak. Kontratazio araudia. Administrazio araudi orokorra.

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Jasangarritasunerako Kudeaketa publiko estrategikoa bultzatzea, eta baita ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa ere.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Tokiko Agenda 21 indarrean duten udalen kopurua	Kopurua	=	37,00	37,00	37,00	40,00
(Agenda 2030) Garapen Jasangarrirako Helburuetan joera positiboa duten adierazleak	Ehunekoa	>=	37,00	40,00	40,00	75,00
Herritarrek naturarekin duten lotura maila	Ehunekoa	=	0,00	30,00	30,00	40,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Ingurumen hezkuntza eta naturarekin lotura sustatzea



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	126.241,50			2021/01/01	2021/12/31	
1.1 Ekintza Gipuzkoa Naturaldia- Ekitaldeak	72.724,90			2021/01/01	2021/12/31	
1.2 Ekintza Gipuzkoa naturaldia- Ikerketak eta baliabideak	29.608,30			2021/01/01	2021/12/31	
1.3 Ekintza Gipuzkoa Naturaldiaren web-edukiak mantentzea eta hobetzea	5.585,81			2021/01/01	2021/12/31	
1.4 Ekintza Beste ekintza batzuk, ingurumen hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako	18.322,49			2021/01/01	2021/12/31	

2. Jarduketa ildoak:

Tokiko Agenda 21a. eta tokiko eta lurraldeko jasangarritasunerako beste tresna batzuk mantentzea eta hobetzea, Garapen iraunkorrerako Helburuak txertatzeko (2030 Agenda)



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	423.341,50			2021/01/01	2021/12/31	
2.1 Ekintza Tokiko eta lurraldeko jasangarritasunaren politikei buruzko ikerketak (Agenda 2030)	60.412,45			2021/01/01	2021/12/31	
2.2 Ekintza Iraunkortasunerako diru-laguntzak udalentsat	150.362,45			2021/01/01	2021/12/31	
2.3 Ekintza Gipuzkoako Iraunkortasunaren Behatokiko web-edukiak mantentzea eta hobetzea	4.204,15			2021/01/01	2021/12/31	
2.4 Ekintza Beste jasangarritasunerako diru-laguntza batzuk (Udalsarea 2030, EHUko jasangarritasun-foroa)	187.072,49			2021/01/01	2021/12/31	
2.5 Ekintza Reactivate kanpaina	14.381,66			2021/01/01	2021/12/31	
2.6 Ekintza Agenda 2030-Garapen Jasangarritako Helburuekin (GJH) foru politiken lerrokatzea	6.908,30			2021/01/01	2021/12/31	



GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Hezkuntza eta ezagutzarako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Jasangarritasunerako plangintza eta hezkuntza

Kuantifikazioa: 480,42 (% 0,09)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	(% 100,00)	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	

HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:


Programa honetako ekintza asko udalei eta eskualdeko erakundeei zuzenduta daudenez, Zerbitzu hizkuntza ardatza landuko da bereziki. Udalekin harremanetan euskarari lehentasuna emango zaio eta herritarrei zuzendutako ekintzetan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.

Kuantifikazioa: 11.110,94 (% 2,02)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 40,00)	1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak
		1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da. Ekitaldien antolamendu fasean hizkuntza trataera zehatza definituko da aldebereko interpretazioaren beharrak barne.
		Prentsan jartzen diren iragarkiak eta gainerako publizitate ekintzak 2 hizkuntza ofizialetan egingo dira.
1.3. Ingurune digitala	(% 20,00)	Web orrietara sartzean, euskarazko orria agertuko da lehendabizi, eta Normalizazio planeko 13. artikuluko gainontzeko irizpideak aplikatuko dira.
5.1. Administrazioa	(% 40,00)	Diru laguntza arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
		Behatokiak argitaratutako dokumentu guztiak elebitan egondo dira. Gero eta dokumentu gehiago euskeraz sortzeko pausoak emango dira.
		Udalekin harremanetan (komunikazioak, aurkezpenak, udal txostenetan) euskarari lehentasuna emango zaio.
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten udaletara zuzendutako ingurumen ebaluazio txostenak euskaraz bideratzeaz gain, gero eta txosten gehiago euskaraz sortzeko hurratsak emango dira



Programari lotutako GJH zerrenda

GJH		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	15-LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA Lehorreko bizieta babestea, lehengoratzeta eta modu jasangarriean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.	549.583,00	
Guztira		549.583,00	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2020	2021	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2022	2023	2024	2025 eta hurrengoak/ 2025 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	68.816,00	69.083,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	169.000,00	155.500,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	75.000,00	75.000,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	312.816,00	299.583,00					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	150.000,00	250.000,00					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	150.000,00	250.000,00					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	462.816,00	549.583,00					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		69.083,00				69.083,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		155.500,00				155.500,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES		75.000,00				75.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		299.583,00				299.583,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		250.000,00				250.000,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		250.000,00				250.000,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		549.583,00				549.583,00